

MIRAMMAR
WVWVWB



- 1. Donostia**
- 2. Miramar Jauregia**
- 3. Ekitaldi paregabeak**
- 4. Gure aretoak**
- 5. Zerbitzuak**
- 6. Planoak**



Donostia

Bere edertasunagatik eta gastronomia bikainagatik ospetsua, Donostia abegikorrek bisitaria lehen begiratuan gatibatzen du.







Donostia hiri atsegina, eroso eta irisgarria da, ekitaldiak eta kongresuak egiteko behar diren azpiegitura eta zerbitzuekin prestatua, helmuga ezin hobe bihurtzen du biltzarkidearentzat.

Ekitaldi sozialak egiteko gune bereziak eskaintzen ditu, eta, gainera, jarduera osagarrien aukera ugariak ezin hobeak dira zure konbentzioari amaiera bikaina emateko.

Donostiak 2.800 logelatik gorako hotel azpiegitura du hiriaren bihotzean.

Ezagutu gure hotelak.

Aireportuak

Donostia
20 km

Bilbo
100 km

Biarritz
40 km



Miramar Jauregia

Miramar Jauregia eraikin enblematikoa eta berezia da, eta kokaleku pribilegiatua du Kontxako badiaren aurrean.





1893an eraiki zen Maria Kristina erreginaren eskariz, Ralph Selden Wornum arkitekto ingelesaren proiektu batean oinarrituta, eta XIX. mendeko multzo arkitektoniko bat da, mota guztietako ekitaldiak egiteko toki paregabe bihurtua.

1893

Espazio berezia eta moldakorra da. Azken belaunaldiko teknologiaz hornitutako hainbat areto ditu, eta bezero bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu integral batekin osatzen dira.

> María Cristina erregina Alfonso XIII semearekin.



Ekitaldi paregabeak

Zure bilera burutzeko esparru zoragarria, edertasun naturalaz inguratua eta itsasori begira.





Miramar Jauregia era guztietako ekitaldiak hartzeko prestatua dago.

Gure 11 aretoek 35 eta 195 pertsona bitarteko edukiera dute, argi naturala eta hainbat ezaugarri desberdin dituzte, askotariko ekintzak egiteko oso egokiak dira.

Bilerarekin batera, enpresa-bazkari bat, kafe-etenaldia, gala-afari bat edo koktel bat antola dezakezu; galdetu gure taldeari catering-aukerei buruz.



Gure aretoak

Miramar edozein ekitaldi arrakastaz gauzatu ahal izateko aukera ezin hobe da.





Julio Caro Baroja

Eraikin noblearen lehen solairuan dago; argiztapen natural bikaina du, eta Kontxako badiaren bista ikusgarriak. Leku aproposa da hitzaldiak, jardunaldiak eta kongresuak egiteko.

Aurrerapen teknologiko guztiak ditu, eta proiektzio-pantaila handi bat. Antzokietan bezala jarritako eserleku gorriek estiloa eta nortasuna gehitzen diote kutsu klasiko eta dotoreko areto honi.



195

Edukiera
Antzokia



—

Edukiera
Eskola



—

Edukiera
Oturuntza



—

Edukiera
Koktela





Jangela Erreala

Jauregiko gelarik handientsuena da. Areto handi honek argi natural bikaina du, eta azken teknologiaz hornituta dago. Leku aproposa da batzarrak, konbentzioak, jardunaldiak, mahai-inguruak, ekitaldi korporatiboak eta ospakizun bereziak egiteko.

Gainera, begiratoki oktagonalek dauka, Kontxako badiaren bista ikusgarriekin.



100

 Edukiera
Antzokia


50

 Edukiera
Eskola


100

 Edukiera
Oturuntza


125

 Edukiera
Koktela

Musika Saloia

Jauregiko aretorik dotoreenetako bat da eta hegal noblearen erdian dago. Lorategira ematen duen galeria estalirako irteera du, eta Kontxako badiaren bista ikusgarriak.


Haren leihate handiek argi natural bikaina ematen diote gelari, eta brontze eta kristalezko bi armiarna handik estiloz eta glamourrez janzten dute.

Gune ezin hobea da konbentzioak, seminarioak, showroomak edo produktuen aurkezpenak, ezkontzak eta ospakizun bereziak egiteko.



100

Edukiera
Antzokia



50

Edukiera
Eskola



100

Edukiera
Oturuntza



125

Edukiera
Koktela





Saloi Zuria

Argitsua eta dotorea, bista ikusgarriak ditu: begiratokitik Kontxako badia osoa ikusten da.

Gela eder hau leku aproposa da konbentzioak, prestakuntza-saioak, tailerrak edo prentsaurrekoak egiteko, bai eta familia-ekitaldiak, ezkontza edo bataio zeremoniak egiteko ere.



70

Edukiera
Antzokia



35

Edukiera
Eskola



60

Edukiera
Oturuntza



80

Edukiera
Koktela


Zurezko Saloia

Ingeles estilokoa, aretoa haritz-zurezko friso batez inguratuta dago, eta, bertan, tximinia handi bat dago, Habsburgo-Lorrena etxeako armarriekin. Zuzenean lorategira ematen duen gela atsegin honek argiztapen natural bikaina eta Kontxako badiaren bista ikusgarriak ditu.

Dotorezia klasikoa eta ekipamendu teknologiko aurreratua uztartuta, ezin hobea da bilerak, mintegiak eta showroomak egiteko, bai eta ekitaldi pribatuak eta familia-ospakizunak egiteko ere.



60

 Edukiera
Antzokia


30

 Edukiera
Eskola


60

 Edukiera
Oturuntza


80

 Edukiera
Koktela




Petit Saloia

Eraikin noblearen hegoaldeko hegalean dagoen espazio intimo eta lasai bat da; hegoaldeko terrazarako irteera zuzena du, eta atzeko lorategiaren bista ederrak. Haren leihate handiek argi natural atsegina ematen diote aretoari.

Trebakuntza-saioak, prentsaurrekoak, batzar nagusiak eta formatu txikiko ekitaldiak egiteko leku egokia.



50

Edukiera
Antzokia



25

Edukiera
Eskola



50

Edukiera
Oturuntza



60

Edukiera
Koktela

Liburutegia

Garai batean jauregiko liburutegia izandako gela izaera klasiko eta dotoreagatik nabarmentzen da. Hormak estaltzen dituzten apalategiek eta haritzeko boiserieek, bai eta haritzeko kasetoidura bat eta landare-motiboekin landutako friso bat konbinatzen dituen sabai ikusgarriak ere, giro epel eta dotorea sortzen dute gela honetan.

Hegoaldeko terrazarako zuzeneko irteera eta atzeko lorategiaren bista ederrak ere baditu. Leku ezin hobea da zuzendaritza-batzordeak, batzar nagusiak, administrazio-kontseiluak edo oturuntza bereziak egiteko.



25

 Edukiera
Antzokia


18

 Edukiera
Eskola


30

 Edukiera
Oturuntza


35

 Edukiera
Koktela




Hall

Gela zabal hau solairu noblearen banatzaile nagusia da. Errege-armarria landuta daukan Erdi Aroko estiloko tximinia handi batek babesten du, eta parkearen bistak dituen terraza arkupetura irekitzen diren hiru balkoi-ate handitatik jasotzen du eguerdiko argia.

Zure ekitaldietan jendeari ongietorri bikaina emateko espazio gardena eta dotorea, erakusketa komertzialak egiteko edo kongresuetan posterrak aurkezteko.



60

Edukiera
Antzokia



—

Edukiera
Eskola



50

Edukiera
Oturuntza



60

Edukiera
Koktela


Santa Klara

Eraikin noblearen lehen solairuan dago. Argiztapen natural bikaina du, eta Kontxako badiaren eta izen bereko uhartearen bista ikusgarriak. Santa Klara aretoa leku aproposa da hitzaldiak, mintegiak edo trebakuntza-saioak egiteko.



100

Edukiera
Antzokia



50

Edukiera
Eskola



—


Edukiera
Oturuntza



—

Edukiera
Koktela





Zerbitzuen Pabiloia

Formatu handiko gela hau zerbitzuen hegala lehena solairuan dago. 160 lagunentzako espazio zabala da, eta egokia da edozein motatako ekitaldiak egiteko: batzarrak, konbentzioak, jardunaldiak, mintegiak edo mahai-inguruak, besteak beste.

Ekipamendu teknologiko aurreratuaz gain, aretoak aldibereko itzulpen-kabina bat eta bideo-proiekzioko sistema bat ditu.



160

Edukiera
Antzokia



80

Edukiera
Eskola



—

Edukiera
Oturuntza



—


Edukiera
Koktela

Prentsa Aretoa

Zerbitzuen Pabiloiaren beheko solairuan dago, eta gela horrek neurria egindako irtenbide bat eskaintzen du prentsaurrekoak, administrazio-kontseiluak, batzarrak edo bideokonferentziak egiteko.



35

 Edukiera
Antzokia


15

 Edukiera
Eskola


—

 Edukiera
Oturuntza


—

 Edukiera
Koktela




Printzearen Pabiloia

Areto zabal hau Printzearen Pabiloiaren lehen solairuan dago, eta leihate handiz inguratuta dago. Leihate horiek finkako lorategietara ematen dute, eta argi natural atsegina ematen diote gelari.

Azken teknologiaz hornituta, aretoak aldibereko itzulpen-kabina bat eta bideo-proiektzioko sistema bat ditu, eta, ondorioz, gune egokia da prestakuntza-jardunaldiak, hitzaldiak edo mintegiak egiteko.



110

Edukiera
Antzokia



55

Edukiera
Eskola



—

Edukiera
Oturuntza



—

Edukiera
Koktela

Zerbitzuak

Bikaintasuna lantzen dugu zerbitzuan: erantzuteko azkartasuna, aholkularitza eta irtenbide sortzaileak.







Zerbitzu eskaintza zabala, abangoardiako teknologia eta talde profesional bat zure eskura ekitaldi paregabeak sortzeko.

Ikus-entzunezko zerbitzuak

Talde profesional gaitua eta azken belaunaldiko material ugari ditugu, era guztietako ikus-entzunezko ekoizpenak egiteko.



Gure 30 urteko esperientzia, xehetasun guztiak pasioz eta profesionaltasunez zainduz, arrakastaren berme da.

Informazioaren teknologiak eta komunikazioak

Zure beharretara egokitutako soluzio teknologikoak eskaintzen ditugu. Gaitasun handiko wifia, ekitaldiak streaming bidez ematea, aldibereko itzulpena: itzulpen- eta hartzaile-kabinak, besteak beste.

Gure teknikari-taldeak aholkatuko dizu zure ekitaldiari teknologiarik onena nola eman, esperientzia ezin hobea ziurtatzeko.



Donostia, munduko gastronomiaren abangoardiako hiria.

Catering

Gure areto dotoreak oturuntza, koktel edo gala-afari bat egiteko eszenatoki aproposa dira. Gozatu itsasoari begira, esperientzia gastronomiko paregabea bizi duzun bitartean.


Kalitate goreneko catering-enpresen gomendio bat jartzen dugu zure eskura, zure beharretara ondoen egokitzen dena aukera dezazun.

Planoak




Beheko Solairua

Kontxako Badia




Lehen Solairua

Kontxako Badia



Edukiera

Aretoak	Antzokia	Eskola	Oturuntza	Koktela	m ²	Neurriak (m)
Julio Caro Baroja	195	—	—	—	180	23 × 7,8 × 3,5
Jangela Erreala	100	50	100	125	120	15,5 × 7,7 × 4,6
Musika Saloia	100	50	100	125	120	15,5 × 7,7 × 4,6
Saloi Zuria	70	35	60	80	93	11,6 × 8 × 4,6
Zurezko Saloia	60	30	60	80	87	11,6 × 7,5 × 4,6
Petit Saloia	50	25	50	60	80	11 × 7 × 4,6
Liburutegia	25	18	30	35	80	11 × 7 × 4,6
Hall	60	—	50	60	76	9,5 × 8 × 4,6
Santa Klara	100	50	—	—	110	15,5 × 7 × 3,1
Zerbitzuen Pabiloia	160	80	—	—	170	20,5 × 8,6 × 3,7
Prentsa Aretoa	35	15	—	—	60	9,8 × 6,6 × 2,4
Printzearen Pabiloia	110	55	—	—	130	15,5 × 8,5 × 3,2





Mirakontxa Pasealekua 48
20007 Donostia / San Sebastián
943 21 90 22
miramar@miramar.eus

palaciomiramar.eus